

Haur eta gazte literatura Nafarroan

Xabier ETXANIZ ERLE

Resumen

Los primeros libros en euskera dirigidos propiamente a niños en Navarra se publican en la década de los 60 gracias a Marijane Minaberi de Banka (Baja Navarra): *Marigorri* (1961) y la colección de cuentos *Itchulingo anderea* (1963).

En los últimos años la producción en euskera se ha concentrado en Gipuzkoa donde se encuentran la mayoría de escritores, ilustradores y editoriales. Los trabajos realizados por escritores navarros son escasos aunque de buena calidad entre los que destacan:

José María Satrustegi que ha publicado varias colecciones de cuentos populares en la colección *Oinarr*: Ipuin miresgarriak (1980), Lapur zuriak (1981) y Axelko eta Otsoko (1983).

Eduardo Gil Bera y Asun Arriazu con dos colecciones de cuentos, *Murtxanteko lapurrak* y *Patxiku Parranda*, en los que se aprecia el estilo de cuento popular y localismos navarros como el lenguaje, los contenidos, etc.

Aingeru Epaltza destaca por su novela de aventuras *Lur zabaletan* (1994) en la que introduce léxico y estructuras del dialecto navarro en el euskera batua. Su segunda obra para niños publicada recientemente, *Sorginkerien liburu*, también es una narración de aventuras.

61

Estos dos libros han sido ilustrados por Asisko Urmeneta quien junto con Pedro Osés y Pilar Beltzunegi forman el trío de ilustradores navarros para libros en euskera más destacados en este momento.

En cuanto a teatro, la aportación más importante es de Xabier Díaz Esarte (*Sei haur-komedia, A zer nolako komeria!* y *Teloiaz bestaldean*).


Por último, destacar la labor realizada por la editorial Pamiela que desde 1986 lleva publicando la colección *Tamaina Ttikia* en la que están incluidas algunas de las más importantes obras de los últimos años además de editar varios ensayos sobre Literatura Infantil y Juvenil. Ha realizado una valiosa aportación para mejorar la calidad de este género literario y ése es el mayor reto hoy en día: aumentar la calidad... también en Navarra.

Euskarazko haur eta gazte literatura, helburu estetikoa primatzen duen produktutzat hartzen baldin badugu literatura, 60ko hamarkadan hasten da Banka (Baxenafarroa) herrian sorturiko Marijane Minaberi idazlearen eskutik. 1961ean *Marigorri* ipuina, 1963an *Itchulingo anderea*... ipuin bilduma eta bi urte geroago argitaraturiko *Xoria kantari* poesi liburuak izan ziren Minaberririk lehengo urteetan eginiko ekarpen xume baino garrantzitsua.

Helburu didaktikoa, ideiak erakusteko edo euskararen aldeko mezua zabaltzeko haurrentzako liburuak egiten ziren garaian, Minaberri irakurgai atseginak eskaintzen saiatu zen. Ipuinei kutsu herrikoia darie, ahoz-aho kontatzeko moduko ipuinak dira, biziak, arinak eta entretenigarriak. *Xoria kantari* liburuak osatzen duten 23 poemak, aldiz, jolas moduan irakur daitezke. Soinuen jolasak. Errima, errepikapenak eta onomatopeiak dira gehien erabiltzen diren elementuak: egitura aldetik, bestalde, oso sinpleak dira poemak, erraz irakurtzeko modukoak. Lehen poema hau da liburuari izenburua ematen diona:

Xoria kantari
Tiru liru li
Xoria kantari,
Tiru liru la,
Zeruan dabila.
Tiru liru le
Kafian arroltze,
Tiru liru le
Arroltzean kume.
Tiru liru li
Xoria kantari,
Tiru liru la

Primadera hor da.
(Minaberri, 1965:3)



Reproducido del libro *Cosas de Navarra* editado en 1936 por la INSPECCIÓN DE EDUCACIÓN

62

Liburuak osatzen duten poemak artean zazpi kantak dira (beren airea agertzen delarik poemarekin batera). Azken kanta dugu, preziski, liburuari amaiera ematen dion testua eta "Xori pollit pollita" du izenburutzat. Hona hemen poema horren hasiera:

Goizean goiz jeikirikan
Izatu naiz baratzean
Lili polliten erdian.
Zoin diren xoragarriak,
Lili polli pollitak!
(op. cit.: 47)

Idazlan hauekin abiatzen da, beraz, euskal haur eta gazte literatura. Baina udaletxeko idazkaria, irakaslea eta *Basque Eclair* aldizkariako idazkaria, beste hainbat lanean artean, izan den idazle honek etengabe jarraitu izan du lanean. Azken urteotan *Xirrixta* haur aldizkariaren erredakzioan aritu izan da, 1982an Euskaltzaindiak antolaturiko Toribio Altzaga saria eskuratu zuen *Haur antzerkia* lanarekin... Hala ere, une honetan Iparraldeko egoeraz aritzean kezka da nagusia Minaberriren ustetan: "Hemengo ekoizpena sortzea baitezpadakoa da etxeetan sartzeko, eta batez ere barnealdeko aitaxi eta amaxiengan pentsatzen dut ez baitute ulertzen Hegoaldeko euskara." (Minaberri, 1997).

Hegoaldean, hain zuzen, eman da aldaketarik nabarmenena haur eta gazte literaturan. Minaberrik dioen bezala une honetan, eta bere lanaz gain, Iparraldean ezer gutxi egiten da

haurrentzat Hegoaldeko produkzio nabarmenarekin parekatuz behintzat. Baina Hegoaldean ere desoreka nabarmenak ematen dira probintzien artean. Gipuzkoa da arrazoi askorengatik une honetan idazle, argitaletxe eta ilustratzaile gehien biltzen dituen lurraldea. Desoreka horren beste adibide bat dugu Nafarroa. Kontakizun askotako lurraldea dugu probintzia hori (Aitor Arana legazpiarrak *Jainko txikia* ipuinean Nafarroako neska-mutiko batzuk ditu protagonista, esate baterako); bestalde, P. Zubizarretak Sunbillako atautxi edo aitonari entzuniko ipuina erabiltzen du *Gutun harrigarri bat* liburuan, eta *Eztia eta ozpina* nobelaren azken atala egiterakoan *Tipi-tapa* aldizkaria erabili Nafarroako presentzia nabarmenduz euskal haur eta gazte literaturan. Baina azken urteotan probintzia horretan sorturiko lanak oso urriak izan dira proportzionalki (kalitatearen aldetik, berriz, nahiko interesgarriak dira).

Nobela historikoak eman dira mende honen bigarren erdian (Navarro Villoslada, Arturo Campión,...), baina gaur egun lan horiek ez dute aparteko eraginik eta lan gehienak agorturik daude. Aldiz, oraingo idazleen artean badira aipatzeko moduko lan batzuk.

Jose Maria Satrustegik “Oinarri” sailean argitaratutako *Ipuin miresgarriak* (1980), *Lapur zuriak* (1981) eta *Axelko eta Otsoko* (1983) dira horien adibide bat. Irakurgai ezaren aurrean eta ikastolen hazkunde handiak sorturiko beharrari erantzun nahian eginiko herri ipuin bilketa horiek interesgarriak dira. Hemengo tradizio era simple batez, eta aberatsa ere berean, haurrengana hurbiltzeko saio aipagarria da Satrustegiren bilduma hori.

“Nik txikitan entzundako zenbait ipui oso zail zait gaurregun biltzea. Azkenean lortu badut, emaitza pozgarritzat eskaintzen dut orain”. (Satrustegi, 1981: 1). Horrelaxe azaltzen digu egileak ipuinen herrikoitasuna eta ipuin horiek berreskuratzen eginiko ahalegina. “Oinarri” bilduma honetako liburuak argitarapen bereziak izan ziren, Ikastolen Elkarteak bultzatuak, eta urtetan ikastola eta ikastetxe askotan erabiliak.

63

Eduardo Gil Bera eta Asun Arriazuren artean idatzitako *Murtxanteko lapurrak* (1988) eta *Patziku Parranda* (1989) ipuin liburuak ere, berriagoak izanik aurrekoen antzekoak ditugu. Herri ipuinen kutsua duten bildumak baitira biak; kutsua diogu sortuak edo asmatuak baitira biak. Gainera, ipuinetako lurraldetasuna, kokapena, Nafarroa da (batean Murtxanteko istorioak ditugu, eta *Patziku Parranda* liburuako lehen ipuina, esaterako, “Sunbillako zubipeko nehelak” izenekoa dugu), bertako kutsua, bertako hizkera, bertako gertakariak baitira liburu bietako ipuinetan agertzen direnak.

Oso bestelakoa da Aingeru Epaltzak idatzitako *Lur zabaletan* (1994) abenturazko nobela. Ameriketara emigratzen duen artzain bikote baten istorioa dugu Epaltzaren lan honetan. Bi estilo erabat ezberdinez banatua (lehen atala aurretik astero astero argitaratu baitzen Nafarroako egunkari batean, eta horrexegatik hain zuzen egitura berezia), ekintzez eta abenturez beterik dago hasierako kapituluetatik amaieraraino. Epaltzak, gainera, Gil Berak bezala, nafarrerazko lexikoa eta egiturak euskara batuan sartzeko eginiko ahalegina aipagarria da.

“Halako batean, zaldi bat draska-draska sumatu zuten gibelean. Buelatu, nor izanen eta... ehiztari zaharra!” (Epaltza, 1994: 96) pasartean ikus daitekeen bezala. Eta aipagarria da ere gure lurretako historia zati garrantzitsua bete izan duten pertsonaia horien inguruan eraikiko

istorioa. Izan ere Nafarrak eta Iparraldekoak izan dira ameriketara emigratu zuten euskaldunen gehiengoa (eta lurralde horretakoak dira, baita ere, A. Epaltzaren nobelako protagonistak).

Aurten kaleratuko da Epaltzaren bigarren lana haurrentzat, *Sorginkerien liburua* (1998) eta honetan familia bati oporretara joatean etxe bitxi batean gertatzen zaizkion abenturak (sorginkeriak) kontatzen dira. Ikusten denez gaia, tratamendua eta errekurso aldetik aldaketa nabarmena dago aurreko lanarekin konparatuz gero. Bai eta hartzaile potentzialari dagokionez ere, oraingoan haur txikiagoentzat eginiko istorioa baitugu.

Azken bi liburu hauek Asisko Urmenetak ilustratuak dira, eta Gil Bera eta Arriazuren artekoak Pedro Osesek. Hain zuzen, horiek dira une honetan euskal haur eta gazte literaturan Nafarroan dauden ilustratzaile garrantzitsuenak. Nabaria da komikigintzak lurralde horretan izan duen eragina eta mundu horretan trebatu direla gaur egun ez bakarrik nafarrak, baita beste probintzietako ilustratzaile asko. Bestelako kasua da Pilar Beltzunegirena, marrazki bizi-dun edo publizitatearen munduarekin izan baititu harremanak. Hiru ilustratzaile hauek (Osés, Urmeneta eta Beltzunegi) dira *Euskarazko Haur eta Gazte Literaturaren Ilustratzaileak* katalogoan agertzen diren 24 ilustratzaileen artean dauden nafarrak.

Baina ezin da egungo haur eta gazte literaturaren egoera aztertu Nafarroan Xabier Diaz Esarte idazlea eta Pamiela argitaletxea aipatu gabe. Lehenak antzerkian eginiko aportazioengatik (*Sei haur-komedia, A zer nolako komeria!*, 1995, eta *Teloiaz bestaldean*, 1997). Une honetan genero horretan dagoen gabeziari aurre egin nahian eta Nafarroako antzerki eskolaren eragina ere nabaria delarik, liburu horiek plazaratu ditu antzerkia haur-rengana hurbiltzeko (lehen Nafarroako Gobernuak emandako diru laguntza bati esker eta bigarrena Haurrendako antzerki testuen lehiaketetan 1994-1995 eta 1996ko deialdietan sarituriko lanez osaturik).

Azken hogeitau urteotan sei lan bakarrik argitaratu dira euskaraz genero horretan eta horietako bi osatu eta interesgarrietakoak Diaz Esarterenak dira. Berak dioenez “zenbat eta gehiago argitaratu, gero eta aukera zabalagoa. Akumulazio prozesu batean gaude. Gisa honetako liburuxkak abiapuntu liriateke beste idazleen estimulu eta kalitateari eragiteko”. (Diaz Esarte, 1995: 28).

Eta hain zuen horixe da idazle honek bultzatzen duena bere lanen bidez. Hain zuzen horregatik editatu du egileak berak arestian aipaturiko liburua, eta bigarrenaren argitarapena Nafarroako erakunde publiko baten bidez bideratu.

Pamiela argitaletxea, berriz, 1986tik ari da “Tamaina Ttikia” izeneko bilduma plazaratzen eta bertan argitaratu dira azken urteotako lanik garrantzitsuenetariko batzuk (*Behi euskaldun baten memoriak, Egun osorako poemak eta beste, Gizon izandako mutila, Haur folkloreaken bilduma, Jaun agurgarria...* eta *Alice, Perraulten ipuinak* edo *Ali Baba* itzulpenak) eta artikulua honetan aipatzen diren azken urteotako narratibazko obrak. Horretaz gainera, Haur eta Gazte literaturaren inguruko saioak plazaratu ditu etxe honek aurreko urtean (1997an), arestiko ildo horri jarraituz. Pamiela argitaletxeak, dudarik gabe, lan handia egin du gaurrengungo

euskal haur eta gazte literaturaren kalitatea igotzeko eta hain zuzen horixe da une honetan dugun erronkarik haundiena. Kalitatea hobetzen joatea... baita Nafarroetik ere.

Oharrak

DIAZ ESARTE, X. (1995) *Sei haur-komedia, a zer nolako komeria!* Iruñea: Egilea editore.

EPALTZA, A. (1994) *Lur zabaletan*. Iruñea: Pamiela.

MINABERRY, M. (1965) *Xoria kantari*. Baiona: Iikas.

MINABERRY, M. (1997) "Marijane Minaberri: Iparraldeko haur literaturaren egoera kezkarria da". E. Egunkaria, 1997-4-2, 30.

SATRUSTEGI, J. M. (1981) *Lapur zuriak*. Bilbo: Gipuzkoako Ikastolen Elkartea.